

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila**

**Euskara eta Kulturako foru diputatuaren 1034/2019 FORU AGINDUA, martxoaren 26e)oa, Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 26ko 13/2019 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko ardura duen epaimahaiko Kideak izendatzen dituena. Foru Dekretu horren bidez, Foru Aldundiaren diru-laguntzen oinarriak eta deialdia onartzen dira, 5.000 biztanle baino gutxiagoko Bizkaiko udalerriek 2019ko ekitaldian kultur jarduerak egiteko.**

Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 13ko 13/2019 foru dekretuaren bidez, Foru Aldundiaren diru-laguntzen oinarriak eta deialdia onartzen dira, 5.000 biztanle baino gutxiagoko Bizkaiko udalerriek 2019ko ekitaldian kultur jarduerak egiteko (Bizkaiko Aldizkari Ofizialea 47. zenbakia 2019, martxoak 7, osteguna).

Foru dekretu arautzaile horren 11. Oinarrian honakoa ezarri da: aurkezten diren eskabideak aztertu eta ebaluatuko dituen epaimahai kalifikatzailea eratuko da; kideak Euskara eta Kulturako foru diputatu andreak izendatuko ditu foru agindu baten bidez. Izendapen hori egiteko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Aginduaren 44 artikuluan ezarritakoa beteko da.

Oinarri horretan xedatutakoa aintzat hartuta eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauko 39.i) eta 67.1 artikuluek, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, Euskara eta Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudia onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 foru dekretuak eta gainontzeko baterako xedapenek Euskara eta Kulturako Foru Saileko titularrari ematen dizkioten eskumenak kontuan harturik, eta izan daitezkeen abstentzio eta/edo errefusatzeen ondorioetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau.

**XEDATZEN DUT:**

*Lehenengoa:* Otsailaren 26ko 13/2019 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko ardura duen epaimahaiko kideak izendatzea eta proposamena egitea eta hura Euskara eta Kulturako foru diputatu andre txit argiari aurkeztea, behin betiko ebazpena eman dezan. Epaimahaia honakoek osatzen dute:

- Epaimahaiburu titularra:
  - Andoni Iturbe Amorebieta. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendari Nagusia.
- Ordezko epaimahaiburua:
  - Ana de Castro Rubalcaba. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendari Nagusia.
- Epaimahaikide titularrak:
  - Ainara Bergaretxe Undabarrena. EUDELen ordez.
  - Mikel Etxebarria Etxeita. Kultur Ekintzako Zerbitzuko Burua.
- Ordezko epaimahaikideak:
  - Dorleta Goiburu Muruaga. EUDELen ordez.
  - Ana Sánchez Díaz. Kultur Ekintzako Goi Mailako teknikaria.



— Idazkaria titularra, botorik gabe:

- Mikel Murillo Aurrekoetxea. Kultur Proiektuen Zuzendaritzako Teknikaria.

— Ordezko idazkaria, botorik gabe:

- Aitziber Elezkano Altuna. Kultur Ekintzako Goi Mailako teknikaria.

*Bigarrena:* Foru agindu hau interesdunei jakinaraztea, baita Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuari ere, dagozkion ondorioak izan ditzan.

*Hirugarrena:* Agintzea foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

## AZKEN XEDAPENA

### **Azken Xedapen Bakarra.— Indarrean jartzea**

Honako foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2019ko martxoaren 26an.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,  
LOREA BILBAO IBARRA